



BEZEROEN SEGMENTUA

Gure enpresak salduko duen produktua ez dago zehatz mehatz bezero segmentu bati zuzenduta. Baina, bi erabilera dituenek, lehenengoa, sukaldatzea eta sukaldatzea gustoko duen edonorentzako aproposa izango da. Alde batetik, aproposa da umeak dibertitu eta sukaldatzeari gustua hartzeko. Kroketa egiten dituzten denda zein jatetxeak ere bezero bezala hartzen dira, izan ere kroketa asko denbora gutxian egiteko aukera ematen du. Ikasle pisuentzako ere oso aproposa da, ikasten ari diren gazteek sukaldatzeko duten gogo eta denbora murriztu horretan sukaldatzeko aprobetxatzeko aukera bai dute.

Aldiz, bestea, jostailu modura erabiliko denez, jostailuak gustoko edonorentzat egokia izango da, orokorrean umeak izaten dira jostailuak gehien gogoko dituzten bezero segmentua. Skalextrik-ak gogoko dituen edonork ere erosi dezake produktu hau, edo jostailuen lehiaketak ere egin daitezke produktuak dituen aldapak erabiliz. Produktu honek, aldapak ditu edozein motako jostailuak bertatik behera jaurtitzeko.

Laburbiluz:

Sukaldatzeko prototipoa

- 18 urte baina gehiago dituen pertsonentzako.
- Sukaldatzea gustoko duen jendearentzako.
- Denbora gutxi duen jendearentzako.

Jostailu prototipoa

- Adindu batekin jolasten duten 3 urte baina gehiago dituenentzat.
- Edonor erabil dezake.